


# ZAR

388n. zenbakia • 2012 Abendua



[www.euskerazaleak.biz](http://www.euskerazaleak.biz)  
[info.euskerazaleak@gmail.com](mailto:info.euskerazaleak@gmail.com)

## AINZA ZERUAN

Aintza zeruan, aintza zeruan  
aintza zeruan Jaunari  
eta pakea, eta pakea lurrean gizonari.

Aurtxo ttikia jaio berria  
negarrez estalpetxoan  
ama gaixoa aldamenetik  
galde, maiteak zer duan.



Klaudio Barroeta Klaretarraren  
larogeita amar urte betetzearena.



Frantzitik Eleiz-txango, Lisieux' eko  
Teresita'ren bizi-igarobidetik

# Zorion eta urte barri on



# Euskalerrian euskeraz EUSKERA ZALEAK

## 2012-2013 IKASTURTEA

### BIZKAIERAZ 45. IKASTAROA IRU MAILLA ETA ALKARRIZKETA

Egunak: astelen eta eguasten  
edo astearte eta eguenetan

Orduak: Goiz, arratsalde eta gabetan

Ordaña: 150 €

Izena emoteko tokia: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2  
urrutizkiña 94 423 53 22  
Bilbao 48001

Asiera: urriaren 8an

### 45. CURSO DE EUSKERA BIZKAINO 3 NIVELES Y CONVERSACIÓN

Días: lunes y miércoles  
o martes y jueves

Horas: Mañana, tarde y noche

Curso completo: 150 €

Inscripciones: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2  
Teléfono 94 423 53 22  
Bilbao 48001

Comienzo: 8 de octubre

## ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (ogeitabost euro) kontu onetan:

**EUSKERA ZALEAK**  
**BILBAO BIZKAIA KUTXA**  
**2095 0000 74 2000089615**

**Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguazu!**  
**Ebago orri onetan txarteltxu au, eroan BBKra eta ordaindu 30 €.**  
**Ez dozu ezer be idatzi bear.**  
**Baiña, aztu barik, esan Kutxan zeure izena eta zeure errikoa.**  
**Eskerrik asko!**

## Euskerazaleak

ASOCIACIÓN PARA EL FOMENTO DEL EUSKERA

Colón de Larreategi, 14 - 2.º dcha.

48001 BILBAO

Urrutizkiña : 944 235 322

info.euskerazaleak@gmail.com

Laguntzaille



Bizkaiko Foru Aldundia  
Diputación Foral de Bizkaia

Kultura Saila  
Departamento de Cultura

ISSN: 1132 - 1350

Lege gordailua: BI-1452-85

Flash Composition, S.L. - Bilbao

www.flashcomposition.com

# LANDAJUELA, ANTON, II.

## 7.- AGATE DEUNA

«Zezellearen illean lauan, usua dogu munduan, Deun Agatena kantatuteko, bakoitzak bere moduan».

«Uzaba jauna damotzut pozez, atsegiñezko gau ona, zeure alabai jakin eragin, biar dala Agate Deuna».

Begipean dozuzan goiko bi bertsoz asten zan eskea, naiz-ta beste batzuek, beste era ta tajuz asten ba-eben be.

Bertsozko goralmen errukilariak, Agate Deunari zuzenduak, Andrazko ezkon-gairik izaten zan etxetan maitasunezko bertso kirikilariak, eta ilbarriackiko atzekabez ziranean "Aita Gure" bat edo bi.

Dirutan gitxi batzen zan, arrautz, lukainka ta beste txarriki ugari. Abestalde bakoitzak berarentzat izaten eban, batzen ebana, eta jaiia gerozko lenen edo bigarren igandez bate ederre-bazkaria, edo-ta aparria.

Agate Deunatzaz beste oitura bat be, emen: Urteazearko eberdietan joale, kanpai nagusiaz amabiak jo; larunbatetan da jaiaurreko egunetan al besteko dilin-dalandak; illeta eta sukanpak, arrikanpai, argikanpai, aimari-ezkillak jo eta, eliza garbitu. Meza ospetzean da bateoetan, abadeari lagundu, eta zeinbat eginkizunen arduradun sakristaua izaten zan.

Sakristauak be, ba, oiturazko eskubidea eban urtean zearko elizlanen ordain-sari, Agate Deunez, atez-ateko eskea egitea.

Eskeibiltean, berak, eskurik, ezaban artzen. Monagillozintzakoak, au da elizkizun andietan, illatetan da abar, laguntzalle izaten ziran mutiko koskorrak izaten ziran eskeaz arduraturik, eskean be egiten ebenak.

Mutiko eske-batzallek erriko alde batetik batzuk, besteak bestetik, goizerik asten ziran, eskean. Otzara andia eskuan ebela, bikoz ebiltzen.



Egunetan da illabeteetan sakristauaren etxean txarririk il ezarren, ezan gosearen bildurik izaten: arrautz eta txarriki; gari; indaba, intxaur... Lurreko ziturik ezeukanak diruz ordaintzen ekian sakrisau-atzazko oiturazko zorra.

## Eskiljoteari buruz zerbait geiago

Ildakoa umetxoa izatean txan-txin zolidun ezki-lotsez adiarazoten jakon erriari. Umetxua aitatu daroat. Baiña egia esan dagidan: "Aingerua" izaten zan aur zenduatzaz erriaren aotik urtetan zan izena. Eriotz-ezkil zoliaren ota entzutean ba: "angeru-kanpaia da", "aingeruen bat" ilda esaten genduan.

Aingerua ezanarentzat, andiangoarentzat kanpai-ots astunagoak eta neketsuagoak izaten ziran, kanpai batek din errukitsua, besteak deun itzalla, din-daunezko kanpai-otsak. Andrazkoa edo gizonetzkoa zan jakin arazoteko, deunbada biz edo-ta iruz, amaitzen zan joaldia, Etxetik urte-tako orduan asten ziran, eta il-elizkizunak goizez izaten ziran. Orain beribillez egiten dana, orduan lepoz egiten zan.



Kanpajoterik andiena Agate Deunari eskeintzen yakona izaten zan. Illunabarreko orduetan, ordubete ta geiago be-bai batzuetan, kanpai danak batean txintxinlin-txantxanlan, daun da dan morroskoen beroz sakaturik ziarduen.

## 8.- ILLETA

Auzoko lau gizonek eroaten eben il zana elizaraño eta elizkizunaren geroz, illarrira.

Illeta-elizkizuna iru galga, iru mailla ezbaridiñekoz izaten ziran; 3gn, 2gn eta leenengoa. Irugarren maillakoa, txiroena abade batek lagundurik izaten zan. Bigarrena bi-itu ebazan eta. Lenengoak etxaguntza zabaleko izatean erriko, au, errietakoek bere bai, deia izaten eben illetara etorri eitezan. Eta illaren urbil, Pater noster eta kitolis pekarariska, dominus nostrum, susun korda, pekara mundis eta abar, ez illak eta ez biziak tutik ulertzen ezeben milla erdel-itz birresaten erogaien etxaguntza lur emonkorren batekoa illa izaten zanean.

Elizarakoan ogidun otzaratxoa buruan jarririk, abadearentzat ogiaz, illaren aurretik, andrazkoa izaten zan.

Aintzin aldien baten, ezagutzen ez neban garaien batean eliz barruan, eta elizari loturik ziran aterpean illobiratzten ebezen illoztuek. Geroengo batean illerriek egin, illotzek eortzeko.

Elizetan baiña, aintzin zarreko oiturari jarraituz, sendi bakoitzak berari egokion arloa, sailtxoa eukan; eta senide edo etxekoen il jakena arlo aretan lurperaturik baegon lez jarraitzen eben igande ta jai etxekoen batek, belaunez belaun, Jaungoikoak daki, zenbait urtetan.

Esan daroadan illobia izeneko arloa oial zuriaz estaldu eta, oialaren ganean argizaiolak musturretik garra dagie. Udaldiko egun kizkaletan ainbeste argizai-garretan egotea, ezan izaten giro egokia. Argizaiol, kandela ta besterik be izaten zan izarar txo zuri-zuriaren ganean: dirua, txintxin moteleko txanponak, bost eta amar zentimoko aleak.

Iru-lau, bost-sei, zazpi-zortzi diru ale jartzen ebezen zapi aren ganean illobiaren arduradunek eta, mezaratzen ziran bestien batzuk be emoten ebazan txanponen batzuek il zanaren alde abadeak otoiegin zagian.

Abade bat mezan egoan tartean, beste bat, bi naiz iru illobiaren ondora etozan isopo edo zipriztikai esku batean da bestean buruiña ekarrela; eta dirua emoten eutsoen eskura, zenbait zan zenbaturik buruiñan-eta, zenbait ale ainbat Aita gure otoitzen ebezen. Otoi edo Aita gure bakoitzeko isopoaregaz gurutz bat egiten eben, eta Aita gure bakoitza aida baten egin bere.



## 9.- UGUZTA, BATEOA

Ume barrien bat jaioten zanean, erri-ertz goreneko auzotegi naiz beste bazter bateko mutil-koskorrek jaiotzaren barri danok izaten genduan, jaioten zan lekuan jaioten zala, jaiotzaz baño bateoatzaz egunak eta orduak lenagotik arduratzen giñan.

Arratsalde izaten ziran, uguztatzeak, baiña eskola-orduetan ala eskola-orduetatik at? Neska-mutikoen buruaustea, egoneziña, kezka, urduri, a izaten zan.

Kristautzarako egitekoak amaitu ondoren elizatik urtetzen ziranerako, neska-mutiko-koskorak zai gengoan, aitabitxik arrapalan jaurtiko ebazan gozo zuri biribilen begira. Lenengo eskukada atzerantz, bigarrena aurrerantz, ala zein aldetarantz izango zan ezgenkiala, abarrik abar dabillen txepetxa baiño be, zurrago genbiltzazan.

Luzetuten eban ba besoa ta eskua, eta gu ollo gosetuak bagintzazan bat bestearen ganetik zeinek geiago eskuratu, ezti-zuloan erlea baño zoruntsuago. Ordu bateren buruan jai atsegiña izaten genduan.

## 10.– ELIZAKOAK

Gaixoen bat azkenatsetan zanean, esku batean ar-  
gia ta bestean txiliñaz elizmutilla aurretik eta aren  
atzetik abadea gure Jaunagaz gaixoaren etxera.

Txilintxuak txilin, txiklin tilín eta abadeak otoi,  
odei baltzez Anboto baiño, goibelago ta beneago  
joiazan biak atsanka egoanarengana. Eta txilin-otsa  
entzutean andra naiz gizon, zar eta gazte danak  
belaunbikotzen ziran egozan tokian egozala, eta  
egiten ebana egiteari itxirik. A bai ba-zan Jaungoi-  
koarekiko ondo ta lotsa eta ilzorian zanarenganako  
kupira ta errukia.

## 11.– SAN JOAN-SUAK


«San Juan bagillean, denpora ederrean, sapoak eta  
sugeak erre, artoak eta gariak gorde».

San Joan-eguna bai-etorrela somatzean, illabete  
lenagotik asten giñan sasi, ota, abar igar eta sua  
egiteko gai zan dana ta guztiak pilloak auzotegi-  
etan egiten.

Zeñek geiago, zeñek sugarri meta andiago egin  
emoten genduzan egunak eta egunak al genduan  
lekuetatik al genduan sugarra egiteko ona zan guz-  
tiak metagintzan.

Auztegiatiko zeingeiagokak, txapelketa bat iru-  
dian, eta noiz edo bein besteen metak ikus-mikuz  
ibiltan giñan zalatari gisa, Urbiritxagarrak ia beti ta  
beti txapeldun, nagusituten ziran.

Norberena baiño andiagoa zala auzokoen batena  
ikusirik, atxur, kodaña ta igitai zarrak eskuan artu-  
rik barrien barri giñoiazan basondo ta baserrietako  
erregai geiagoren billa.



Beste talde batekoen batzuek ekarriala baiño  
geiagorik gertuta, ebagirik izten ebanean geroago  
ekarri asmotan, alkarri ostu eta gero izaten ziran  
izatekoak: alkarri arrika, lapur deika, belarrondo-  
koak...., eta dana kitutzen zan.

## 12.– SAÑOIA

Eguna igesirik gauabarra etortean da, begiak alde  
batera naiz besteruntz luzatu, su ibiltariak besterik  
ezan ikusten, solomun da bazter danetan. Gari-las-  
tozko eskutan izaten ziran, eta su-ta-gar erionean  
«zuzia» eben izena.

Zuzia eskuan da, San “Joan Bagillean” abestuz, solo  
ta baratzai inguruka mutil-koskorak ebiltzazan  
gein batez, mutikorik ezegoanean baña, etxagun-  
tzetako solo, landa ta alorrak be, ezagutzen eben  
zuzien gar eta berorik. Seme gazterik ezba-egoan,  
aita arduratzen zan, eta aitak ezin ba-eban amatxo  
zarra izaten zan zuzi eta eginkizunaren jabe. Eta  
ke ta garrez zuzia eskuan, gora beraka besoa: “San  
Joan bagillean...sapoak eta sugeak... artoak eta  
gariak..., solo-ertzetan gora ta bera zolirik ibiltan  
zan, mun batetik bestera, sarritan, igaro eziñik be  
bai; ortzik ez-eta ogi-koskor gogorra aoan, iruntsi  
gurarik eta mamurtu eziñik, San joan da zuzi ta  
soñoarekiko fede ta siñismenez gañezka egiñik.

Soloz solo ebiltzazenak noiz etxeratuko ete-ziran  
begira, urduriturik auzotegiko ume, zar, danak  
Sanjoan-sua edo saño nagusia zai ta egarriz.

Noiz edo noiz biztuten eben ba, auzotegiko sutza-  
rra eta andi ta indartsu zan artean “San Joan de  
la Portaletaña”, edo zana zalako abestu; eta azken  
sugarri-kondarrak ia errerik ziranean da sua in-  
dargetu, txingartzaeren alde batetik  
bestera poz-jauzika, ikoka, espartiñak  
eta betulez erre arte saltoka jostatzen  
gintzazan.

Bigaramon goizean suaren auts, illinti  
ta txingar ondakiñak ikusirik, auzotegi-  
etako nezka-mutiko-koskor eta andia-  
goak zirenak be, alkarturik asten ziran,  
arrokeriz eta erronkatsu guzur esate ta  
amaika auek lako: Gure garrak talletu-  
rañoakoak. Gureak barriz, areitzaren go-  
rengo orriak, be, kiskali. Gurean oster-  
a, ordu t-erdigarrenean be, gar bizi-bizia.  
Gurean ziran erretakoak erreta be, illin-  
tiak gaur goizean be, su ta ketan.



Egunetako lan, izerdi, sasi-ostute e.a., ordu biren buruan suak jaten ebazan, ezabatuten euskuzan. Gure ondorengo balaunaldi barriek baiño zuruntsuago gintzazan, ziur askorik.

### 13.– AZOKA, ZEIA

Abelgorri eta txarri-azoka au larubatero ospatzen zan: Igorre-n, Areatza-n, Artea-n, Arantzazu-n. Larunbata batean tokin batean, urrengoa bestean, eta bost larunbateko illabeteetan Arantzatzu-n bi.

Baserritarren zaletasuna azokarako andia izanik, batzuek erdijai eta bestetzuek jai osoa egiten eben. Artarako etxeinguruko lanak zolirik egin lenengo, bizarra moztu, baba-lapikotik lurrezko azpil batean bazkaldu, amaikak aldera; oin-mantar zuriak, etxe-

an bei-narruz egiñekoz abarkaz jantzi, eta belaun gañerañoko burrus baltza be jantzirik, an joiazen zeia izaten zan errira ollar gaztea baiño txairoago, praka barriakaz mutikoa baiño pozago.

Bei, txarri, txalen bat salgai eukanak berak eroaten eban sal-tokira. Argi ta bedartza andidunak ostera bei zar argala, zuldarez beterik egoan basabei errape tximela, eperzorrotza, uletsua erosi gura; jan-betekadak emon, loditu, saldu...diru barria kaxan sartzeko.

Zeira azaltzen ziran abere danak salgai eziran izaten. Ipuzturri onaren jabe zana, arrozko samar joaten zan idi bikotea erakustera. Bigantxa eder eta esne-beien nagusiari be laket jakon, ukulluko aziendarik onenagaz feriaratzera. Eta gure aiton baserritarrek ezitan emoten ebezen azoka-orduak beiari begiraka, edo-ta zeinbat alditan eta ainbat lekutatik narrutik eldurik, errapean igurtziak egiñik, atzetik aurrera ta aurretik atzera arretatsu begiratu eta soegiten eutsaelarik.

### 14.– SALEROSKETA

Saltzalleak, aberearen jabeak goi-goian, jartzen eban salneurria, eroslearen eskeintza beetik asirik eta goruntz igoten eban neurrian, lenengo goiko neurria beera etorren maillaka maillaka; baiña eskaturiko ta agindutakoa alkarrengana urreratzen ziranarren, ezkontzak beti eziran izaten, bost-amar ogerlekoren arazo ebatzieziñagaiti. Bat ezin zirala





etorri ikusi eta entzunik, aldamenan izaten ziran lagunak tartekotuten ziran, eskua-artu, eta salerosketa burutzen bitarteko egiñez lagundu.

Bitarteko batek jaberri aulan: Jatsi jok bost ogerleko, bost ogerleko gaitik belea baltzago eztoz izango-ta.

Erosleari beste batek: Iru ogerlekoren goraberagaitik, gu ilda gero be zer eio izango juek errotak, bai, eta bei barik ez-adi etxeratu.

Irugarren eta laugarren bat be tartekotuten ziran, albokoaren begira ta egarriz.

“Albokea”, batzuetan, saltzen ebanak, bere bizkar arzen eban; bestetzueta eroslearen lepotik izaten zan.

Egungo gaztediak “albokea” egitea, ete-daki zer dan?

San Antonio-n beia zaindu egian, anaitasunik andienaz eta alkartasun txeratsuenan lurrezko ontzitxo bete ardau danen artean edatea izaten zan, “alboka egitea”. Albokarik ezegitean salerosketa koiperik eta gatzik bageko saldea lakoa izaten zan: ez goza, ez gazi, ez gaza.

Azoka-egunak larunbatak izaten zirala esanik dago.

Lau erritan ospatzen ziran, txandaka: aldiz Igoerre-n, aldiz Artea-n, aldiz Areatza-n eta bost larunbateko illabeteetan Arantzazu-n bi, bat besteen ondoren.

Baserritarren egun andia zendu zan, larunbata. Lurrik ezta lantzen. Gizonak besoz, atxur eta izerdiz gari-arto-lur biurturiko baso ta oian andiak lerdoiz, otadi, elordi eta sasiz jantzi dira. Lur-arlo txikiak gorritzen dauz gizonak, eta gorritu eta landuten dauan salla tramakuluen laguntzaz. Lugiña, beraz, ezta ipuzturri bearrez, eta ipuzturrik bear ezean, buztargillerik be, ez.

Zail gertatzen jaku ikustea, solo ta alorretan, bei ta ipuzturri goizean goiz surtzilloetatik lurrunez kea ba-litzan.

## 15.- ERROTAK

Urkitzu-n Urbiritxaga-n, Santa Lutzi-n eta Olabari-n. Batzuek lurrera eroririk, besteen batzuek oraindiño sutik, ibilte nagizko arritzarrak ixil-ixilik, alerik ezean geldirik.

Non ete-dira astotxu xiki epoak, bolurako bidea buruz ikasiak?. Non doguz Areatza-tik eguneroko ogiaz etorten ziran zaldiak, bidertzeko zein etxetan gel eta itxaroten ekienak?

Solo-munetatik zear argizaiolak otzaratxoan, soñeko baltzez eta burua estalkiz, jai ta igandez meza nagusiratzen ziran etxeoandre zoli, euskeraren mintegi, abi bero, abe sendo, arroin gogor iraunpentsuak? Aida Gorri, apala geldi; aurt...gorago.., oo ots egiten eben aitita eta etxemutillak?.

Belaunaldi osoak eta euzko biziera berezia ezabatu ziran, beti-betirako, Aitor-en Euskal Erri zar ontatik. Laiariak, iracaketak, buztargille, gurdi-irrintzi, etxerik etxe ibiltzen ziran andra jostunak; eskale, esneketari, labesuak, burdinartzak, errietako enparatzetan izaten ziran dantzak, oitura berezizko ezkontzak; go-joateak ta eulorriak. Mariaren Alaben eta Luistarren Al-



karteak, kristau ikasbideari buruz urtean beingo azterketa eta txartela artzea, edo-ta ezartzea. Atez ate ebilzan arrain-saltzalle, «sardina fresko-freskua» esanez. Galiziar lapikobarrizalle ta aterkin ontzale eta afanlondoko agurtza-otoia. Gasteiz-era joan itzuliak oñez egiteak, etxondo-etako irapilloak; lorbideak iratareako ondo, baso tartetako bidetxiorretatik ujuju eta arrentzaz zantzo ta irrintzizko alaitasun loratsuan Urkiola´ra ostera egitealde eta a.a.

### Igorrebaso, Basauntz-ako eta Santa Luzialdeko astoak.

Santa Luzitik erbarrenera jasten ziran astoak, bizkarrean ekarren esnea galgatzeko otzarak arriz beteturik, Igorrebasokoak baiño andiagoak ziran, askozaz bere.

Igorrebaso-koak astean bein erbarrenduten ziran, batez be errotara, garia ta arto-zorrak ekarrela. Txikiak izaten ziran, da negu ta uda beti ule andiz jantziak. Gizonaren garriz geroagokoak eziran izaten.

### 16.– JOSTAKETAK

Txirikil, kastor, gartza.

Lau-bost bat atzondo luzez, orkoroa lakoa lodiz eta musturrak bi zorrotzurik, txirikillea olakoa zan.

Berari egokion makillatxoa ukondo bat edo geitxogo luze, txirikilla baiño gizentxoagoa.

Makillaren musturragaz "O" andi bat egiten genduan lurrean, ertz barruan bat jartzen giñan. Esku

ezkerrean geunkan txirikilla eskuman geukan makillagaz jo eskuan geunkalarik, eta al baitik urrunen jaurtitzea izaten zan, joko-asiera.

Txirikilla joten ebana ez, beste jokolagunak aurrea betean eta edaturik izaten giñan txirikilla non jausiko zan begira; eta aizean etorrian lurra jo baño len eskuz, edo-ta burruyto zein jakeaz altzo antzerako bat egiñik lurreratu baño len atxilotu ezker, asiera egin ebanak galdu eta, txirikilladuna izaten zan, barrienbarri joko asiko ebana.

Iñork artu ez-eta, lurreratzen zan tokian lurreratzen zalarik, makilladuna ara joanik joten eban mustur zorrotzean, jagi arazo, eta aidean egoanean barriro be jo-eta "O"ren erdiko kulatzatik urrutiratzen aleginduko zan. Lurrean iru biderrez jo ekian, aidean al eban oiñetan.

Jokoa paluz neurtzen genduan-eta, aulan izaten zan. Bosteun palutara izatean, txandaren nagusiak, txirikilla eroan eban toki aretatik "O"aren erdiko kulatzerañoko bidea, luzera begiz eta arretatsu neurtu ondoren 100, 150, 300... palu iñoian. Jokoa zan lagunek ontzat artzen eben.

Alan izanik, ba, bera izaten zan txirikilla jo eta jaurtiko ebana. Palu-neurrian utsegiñarte, edo aldean joiala beste batek artu arte, jaurtiz urten zan barrutira beragain egotzirik "barru" egin eutzalako edo-ta beste utsen bategaitik txanda galdu arte ekingo eutsana 500... 200... 400..., onen beste "palutara" izaten zan, eta ebatzitako "paluak" jadetziten ebazan lenengoa, irabazlea.

Txirikilla-aldian etorten zanean, aizkoratxoa eskuan arturik berezi ta sasiarteak arretatsu arakatzen genduzan, txirikilla-paluen billaka. Onaren, politaren eta egokienaren billa emoten genduzan orduak. Eskolara bere, liburuak, idazkiak ba-liran eroaten genduzan, laguntartean erakutsi eta, esnebeiri baserritarrak errapera so-egiten dautsan lez begiratu, ondo bere ondo ikustatu. Ondoko lagunarena ohea edo politagoa izaten, aizkorea eskuan arturik barrien barriz beresira giñoiazan obeagoaren billa.

Txirikillaren izena eta jokatzea noraño edatua izan zan eztakian arren, lanen bat errez egitekoa izatean; «txirikillan egingo dogu, txirikillan etxe ori egin dabe, bidea, goldatu...». Neke barik





eta errez egiteko lanak diranean, beraz “txirikillarin” esaten dogu, “aisa egin”, giputzak esaten dute bezela.

## 17.- KASTORRAN JOKATZEA

Kastorrean jokatu, kastorrean egin, kastorra emen da, an eta arantzago, intxaurrekin jokatzen genduan jostaketa izaten zan.

KASTOR izena. Non da noiz sortua, eta euskalduna dan bere, jakin ezarren, noraño zabaldu eta edaturik egoan eztakitanarren, intxaur-garaia eltzen zanean asten genduan, intxaurrak ondu baño len, ezerik egozala.

Len da orain be, intxaurrak, oskol bi izaten dauz; mamiaren estalki gogorra eta, gogorraren ganean, biguna.

Ganerengoa arrakaldu eta zabaldu, iriki egiten da intxaurra ondutera, eltzera datoranean; onduan, bada, alea berez dator lurrera, garbi-garbirik.

Aleak bein osotzen ziranean, olloa zepelatzari begira legez izaten gintzazan, arriek eskuan eta gora begiraka, eratsileian.

Bein atara iristean, neketsua izaten zan arrakaldu zeitekeazan arte begiraka ta so itxaron bearra, eta egon ziran lez egoten zirala, arri-jaurtika erasten genduzan.

Intxaurrak kastorrerako garbiak izan bear-eta, lenengo eginbearra zera izaten zan; arri latzen kontra igurtziaren igurtziz ganerengo narrua jan eta, oskol gogorra garbirik agiri arte, igurtzikari ekin.

Azal ezeak atzamar eta eskuetan izten euskun zikin-margo garbigaitzak, azken-aleak arrakaldu eta lurrera jausi arteño irauten euskun. Loi kendugaitzaren izena, “orbana” zan.

Kastor-jokoa zer zantzaz. Iru marra lurrean da lenengo marran jokolari bakoitzak 2, 3, 5... intxar ipintzen ebazan. Bigarrena, erdikoa bat, alerik pitiena ta bere izena “KATXIN”.

Intxaurrak jarririk egozan leku artatik 4, 5, 7... urrats urrunetik jaurtiten genduan intxaurrik andiena, batek bestearen atzean txanda artuz.

Jaurti, jo eta katxinaren atzekalderaño bialtzen zan intxaurra irabazirik egoan. Eta nik, ik, ak, jaurtika ekiten geuntsan. Bein bat, bein bi, bein bat be ez,



irabazi edo galdu, lenengo lerroan egozanak katxina egoan marran PASA eginazo arte.

Garaipenik andiena katxinetik letorkigun. Txiki pitiena, katxinak atzean eukan marran atzekalderatu ezkerre, a egitea lortzen ebanarentzat izaten ziran, jokoan irauten eben ale ondarrak.

Eukazan danak galtzen ebazanari, joko mueta danetan-ki “puztu” egin joguk, “kipuztu” nabe, “kipuztu” gaitue inotsegun, “kipuzturik” nago, “kipuzturik” itxi nozue esaten genduan.

Eta KIPUTZA aipatu dodalarik, kiputz itzarekiko azalpenen bat edo beste.

Jokaketetan ezezik, otzez kikildurik izatean be, koldar-aldietan bardin, samar-erruz oguztatzen genduan itza zan, Arratia-n beñikbein, KIPUTZA. Baita be, GIPUTZA.

Adibide lez ta adirazgarri, atzamarrarrak doguz lekuko. Otsak gogor ikututzen gaituenean, da atz-muturrak alkarrenganatu ezin, otzaren otzez “kipuzturik” dotaz eskuak “kipuzturik” nago, “kipuzturik” zagoze...eta zer edo zer egiterakoan koldartzen zan laguna be, KIPUTZA izaten zan.

Noizkoa ta nondik etorria dan, indarri eza ta biotzberatasunaren adierazpen dan KIPUTZ berba au, eztakit.

Giputz anaien belarrietan abegi onik izango leukeanik be, ezin esan neike; baña abegi on, zein aurrera gaizto, kopeta txordotu naiz betartea alaitu, berbatic ortzera aoskatzen dogun berba da, Arratian.

**(Jarraituko da)**

# OSPAKIZUNA, KLAUDIO BARROETA KLARETARRAREN LAROGEITA AMAR URTE BETETZEARENA. 2012.07.7



ELKARRIZKETA BILBON, 2012.07.16



**X.X. Uztailaren zazpian 90 urte bete zenduzan. Esan geinke zarrenen artean sartu ziñala.**

Egun orretan San Fermin mundu guztian ezagutzen dogun santu baten jaia ospatuten da.

**X.X. ¿ Zer dala ta ipiñi eutsuen Claudio izena?**

**K.B.**– Nire amari entzun neutsonex, Fermin izen ori ezeunegia zalako errien.

**X.X. ¿Nor zan,non bizi, zer egin eban zure santu zaindari Klaudiok?**

**K.B.**– Mutil gazte bat ei zan, Erroman bizi ta presondegri batean atezain egoana Diokleziano agintari gaiztoenetako, kristauen arerio amorratuaren garaian. Sebastian izeneko kristaua arrapatuazi ta Claudio atezaina presondegian sartu eban. Klaudio txundituta gelditu zan Sebastianen jokabide jatorragaz eta bere antzeko kristaua izateko gogoagertu eutson. Ez eutson barkatu Diokleziano ankerrak ez bata ta ez besteari, martiritza eriotzagaz zigortuzazoz. Arreskeroztik, Claudio presondegiko atezain gaztea Santutzat onartzen da eleizako istorioan eta nik Santu Zaindaritzat daukat bataiatu nintzan ezkeroztik.



*(Aite ta amaren eskontzako argazkia)*

**X.X. Argitu al zeinke zelan ospatu zenduan aparteko egun ori?**

**K.B.**– Bai, orixe, pozarren. Egia esateko, ospakizuna ez zan egun batekoa izan. Egun batzuetan osatu zan.

**X.X.¿ Zeaztu al zeinkez egun orreitako egitadak?**

**K.B.**– Ona emen labur-laburrean, bata ta bestean ospatutakoak.

### 1º– ALDEZ AURREKO OSPAKIZUNA

Ain zuzen be ekañaren 30an, fameli ezagun baten etxean. Agurtuteko aukerea izan neban bai bertako andra-gizonak eta baita euren iru seme alabak (neska bat eta bi mutiko). Senar-emazte orreine ezkontza bedeinkatzea egokitu jatan 2.000 garren urtean, Tolosako Korazonisten elizan. Denbora gitxiko elkar ikustaldia baña, benetan atsegiñezkoa, abade lez bedeinkatutako eskontzak gogora eustelako.



### 2º– ETXEKOEN ARTEAN. Urtebete-egun bezperan

(uztaillaren 6an.) Patxiko nire anai gaztena ikuster a etorri jatan. Marianista erlijiosoa da bera ta Donostiko marianisten etxean bizi da. Donostitik Bilborako autobusean eldu zan goizetik Bilboko geltokira, ta gero nire etxe edo konbentura. Iñoizko anaitasun beroan besarkatu giñan. Klaretarren anaiartean bazkaldu eban eta arratsaldean Donostira abiatu zan eusko trenaren bidez. Eskerrik asko, Patxiko, zure etorteak eta ikustaldiak aitaren eta amaren biotz ona, fameli arteko bakea ta benetako fedea erkutsi deustie. Bizi gaitetzela beti olan.



### 3º– KLARETAR ANAIDIAN.

Larogei ta amargarren urteurrena klaretarrek Bilboko San Francisco kalean daukien etxean ospatu neban. San Klaudio, martiri egunean goizetik lagunarteko meza emon neban anaidiaren elizatzuan. Une eder onetan saiatu nintzan Jaunari eskerrak emoten umealdiko ta erlijioso ta mixiolari bizitzaren zear, bere esku errukitsutik artutako laguntasunakaitik.



Meza ostean mai betea ta zoriondu aldia. Pozgarritzko giroa gozatu neban larogeita amargaren urtemugaren egunean. Arrezkerotzik bilbotar anaidiko zarrena lez markaturik gelditu naz.

### 4º– OTOI GIROAN.

Auxe esa nai dabe andik eta emendik nire alde otoi egiten saiatutako monja-lekai-me ta jainkozaleek. Euren artean gaxo egozanak be bai.



**5º- LAGUN ARTEKO OSPAKIZUNA.**

Nire egunaren urrengoan (2012.07.8) ospatu neban aspalditik lagun eta adizkide dodazan artean. Izan be klaretar ikastetxe ta Parrokian nire abadegintza barritan ezagutu ta adizkidetzat artu nebazanak dira. Benetako alkar maitasun pozgarriazko giroan gozatutako egotaldia.



Omenaldiaren gomutagarritzat, liburu bat eskeñi eustien guztien izenean. Liburu orrek Calles y Rincones de Bilbao dau izen.



*Bertso kantari.*

**X.X.** ¿Zelango erantzuna emon zeuntsen zori-  
ondu zinduzanei?

**K.B.**– Zoriondu ninduen guztieri eskerronez eta otoiitzez.

Bide batez, idatzizko opari bat eskeintzea bururatu jatan,



*Klaudioren jaiotetxea.*

**TXIKITAKO UNE POZGARRIAK** deritxon bertso saio bategaz.

–1–

Larogei ta amar urte,  
gaur dodaz egiten,  
amaren sabeletik  
nintzanetik urten.  
Eskerrak, Jauna, Zuri  
deutzudaz emoten,  
benetan maitemindu  
nauzulako emen,  
zoriontsu izateko  
Zeugaz laster baten.

–2–

Bide barri-barria  
pozik asi neban  
aite ta aman ondoan  
alai ta pozetan.  
Pozik gañezka nintzan  
titia xurgetan,  
pozik ama laztanak,  
artuaz altzoan,  
ta run run run kantatuz,  
seaska kulunkan.

-3-

Mutikotu be nintzan  
taka taka itxita,  
etxe bastar guztiak  
sarri naspilduta.  
Ankak eta agiñak  
apurka onduta,  
gustora jaten neuzan  
esneaz nasteta,  
talo ta pamintxeak,  
labean erreta.

-4-

Etxetik kanporantza  
urten nebanean  
a ze poza nirea,  
txorik ikustean.  
Txiki eta andiak  
tximist abiadan,  
gora ta bera egaz,  
neketu bagean begira  
egoten nintzan  
aspertu ezinean.

-5-

Atsegin jatan, lorak  
landan ikustea  
eskuan artu ta gero  
goxo usaintzea.  
Usain onaz batera,  
euren kolorea,  
nire begitxuentzat  
a miragarria,  
pozik, euki al banau,  
euren itxurea.

-6-

Otzean eguzkia,  
beroan epela,  
ortako egokiena,  
etxeke portala.  
Ortxe apatxin einda,  
lasaitu nagola,  
ikusten nun, aurrean  
astotxu apala,  
ta entzun, orroaka,  
ikulluko txala.

-7-

Nire etxe urbilletik  
doa errekatxoa,  
ta bertan bustitzera  
oso pozik noa.  
Ortozik ipinita  
anka banatxoa,  
urartean sartuta,  
sentituz freskoa,  
gozatu egiten dot  
udako beroa.

-8-

Aite ta ama dabiz  
soloan bearrez,  
goizetik gauberaño  
ekin ta ekiñez.  
Zorionez ba daukat,  
gurasoen ordezt,  
ni zainduten nauena  
txito maitasunez:  
santa bat dan amama,  
Juanita izenez.

-9-

Amaitu jataz guztiz,  
frutu politenak,  
orain gelditu jataz,  
azken ta zimelak.  
Eskertzen dodaz, Jauna,  
zure goi laguntzak,  
eskertzen biotzetik  
Birjiña Amarenak,  
ta zuk, KLAUDIO SANTUA,  
ZABALDU ZERUAK.





## FRANTZITIK ELEIZ-TXANGO, LISIEUX´eko TERESITA´ren BIZI-IGAROBIDETIK 2.012´ko Bagilla´ren 18´tik-25´eraño

### SARRERA.

Zornotzan badagoz andra taldeak oraindiño, Karmengo amaren zaletasunean karmeldar lekaideak zirikituta, alango eleiz-txangoak egiteko prest agertzen diranak.

Eta nik benetan diñotsuet, ez dodala sekula osteraldi oberik egin, eurak antolatuta egin dodazenak baiño.

Txikitatik eurekin oituratuta ?.

Ala, Teodoro, Luki, Eliseo, Olea, Arostegi, Felipe eta neure bizitzan ezagutu dodazan karmeldar on guztiak, 1.979´ko urtetik 1.996´ko urtera Onaindia´tar Aita Santi´gaz il zan arte ibilita euki nabelako maisu ta lagun miñagaz, alango lillura antzeko baten sartuta ?.

Ez, karmeldarrak daukien jakintasunezko maisutasunagaz eta Zornotzako errigizartekoen artean euskal sinismeneko oituran ondo egokituta egonda, beti jakin dabe Kristau Zinizmena eta Karmengo Amabirjiñaren zaletasunak gure errian zentzu ederrean eta gozotasunez ezartzen, zentzun aundiko artu emon orreikaz, karmeldar eta Zornotzako erritarrak senideko giro eder baten bizitzea.

Len eta beti Zornotzako seme-alabak, bat eginda gagoz karmeldarrekin eta eurak gurekin be bai, baiña Frankoren gurutzada eta bigarren munduko

guda ostetik, Mundu, Europa, ta espainiarren agintari guztiak 1948´ko Abenduaren 10´ean O.N.U´ko batzarrean onartuta, munduko errigizartearen eskubideak sinatu arren, euren artean ez ziralako konpontzen, ariñautik ibiltzen eben kolonigille edo menperatasunezko bideekin iraun eben.

Eta menpekotasunezko “Nacional Catolicismo” zikin ori katolikotasun asmakuntzazko eran aurrera eroan dabelako, bere eragipeneko indarragaz, gure artean beti agertzen dira ezjakiñak, Euskalerrikoak garela aztu, edo ta bildurrez menperatzaille guzurtiak ontzat artzen dabezanak, konturatu barik, izadi onetako gizaki, erri ta gauza guztiak euren nortasunezko izenak daukiezela, orekazko ardurean bizi gaitezen.

Orregaitik, ni eta nire erria ez dira espainiarrak: “sagarra” “madaria” ez dan lez.

Europa ta munduko santutegi oneik, kristau baiño katolikotasunaren eragipenerako eginda, eta euren aldi-bateko aunditasunean danok batzangotzeko bitartekoak izateko egin ziran lez, guda-indarra bakarrik geratzen jakien ibiltea, Europaren berezko errigizarteari euskaldunai bezela guzurrezko asmo orretan menperatzeko, eta XIXn gizaldian sortu ta gaur daukaguzan laterritasunari lotuta ipini euskun etenbako

guda keiñatu baten, eta guzurrezko aberritasunari emoten dautsoen indarragaz euren zabalkunderako, bere eragipenaren bidez, espainitarren izena asi zan gure artean agertzen, gure taldekoak espainiarrak izan bagiñan bezela, eta ni aurka agertu nintzanelako, argi-tzaillearenak egin bear izan nebazan batzuekaz.

Batera, balekite beste baten batek aginduta (?), nezkatilla bat ostondutako zirikitu batzuekin neugana tentolari etortea, nik XIVn Luis "Eguzki" esaten eutsoenari buruz, Nafarroako errege lez zer jakin nebana itanduten, eta berari errege-izenetan okerezko zeaztasunak emonda, alegiñ orregaz ia bera bialdu ebena agertzen bazan, baiña iñor agertu ezean ziur nago, neskea zeaztasun orrean zuzentasunak, bere etxera eltzen zanean begituko ebezala.

## Andra batek, zer da espainiar laterritasuna ?, Aberria ez ote da?, itadu eustan:


-Espainiar laterritasunak ez dauka iñongo aberritasunik, Frantziako iraultzaren ostetik Europako erregearen eragipeneko lurraldeak, katolikotasun aolku ta merkantilistak guda nagusien indarkeriagaz alkartuta, berezko erriak laterri oneitan menperatu ebezalako, euki ebezan berezko erri, errege, jaun ta guzti, gizartearen ta ezeren eskubideari begitu barik, mundu eta Europa onetan euren asmakuntzazko diru antolaketak egokitzeko.

Eta gero, Europako errigizartearen eskubideak bere lekuetan ezartzeko.

-Orreik dira gaur, European daukaguzan barragarriko laterri oneik, eta daroagun bidetik sekula ez diranak atonduko, diruaren antolaketatik asi barik, errigizartearen eskubidetik asi bear diralako atondu bear diran oiñarrizko egokitasun orreik, diru kontuko zor-eskubidearen ardurak bere zentzuzko lekuetan ezartzen diranean konpondu egiten diralako, eta sekula ez alderantziz.

Dirua ez da elementu bizi bat, eta tresneri bat bakarrik izanda JAINKO seme/alabaren ordezkariak arduraz egokitzeko, neurri orretan jokatu bear dogu beragaz, berari gure norkei erruz, beste aurrez aurreko aitzindaritasun emon bage.

-Laterriak, itxaropen onekuak dirala esaten neutsien nik, euren zeregiñean daukien esangurea, aldakorrezko denbora baten itzulpena dalako. Baiña noiz-arte ?.



Daroagun bidetik sekula bez, lotsa, arduradunezko lekuetatik kenduta, lapurtza agertzen dalako nun-nai, gaur sortzen jakun lez, eta goiko jakintsu orreik balekite lokatz orretan ondo egotea, euren burueta-tik dirua baiño ez dabelako ikusten.

## Beste batzuk: "Espainia beren edestiagaitik erria ez ote da ?.

-Espainiar, Frantzia, Alemania, Italia eta abarreko laterriak bereztutako bizi onetan, ez dira gure arazoizko baitan zentzuzko aberriak lez agertzen direnak, JAINKOAK Izadi oneri bereztu eutsozan legeakaz, gure barneari begitu ezker, agertu be ez diralako egiten, eta gitxiago gurasoen aitortasunetik kanpo asmatuta eginda dagozanean.

-Guk ez daukagu iñungo almenik Jainkoaren legeak norkeiz erabilteko, eta oker edo itxura txarragaz agertzen jaku egiten dogun guztia, Lege orrean kanpo egiten doguzenak.

-Gauza guzti orreik 325ean Nizeako Eleiz-Batzar Nagusian egokitu ziran, mundu osoa katolikotasunean batzangotzeko asmakuntzatik datozelako.





-Alegin asko egin dabez menperatzailleak, European eta munduko errigizarteetan olango gauzak edo ta bereztasunari begira Jainkoaren Legez kanpokoak izan zitezten, euren sasijainkotasunaren urre gorrizko-txekor gaiñean bizi naian, gaurko egunerarte ikur lez ekarri dabelako, baiña ikusi bear ko doguz emendik aurrera, gaur billakuntza arloan daukaguzan argibidearen erreztasunakaz, zelan konpontzen diran, bizitzaren eskubideko eragilletasunean bear diran ordezkartzazko tresneri guzti orreik euren eskuetan eukiteko.

-Ala, gure jaiotzatik JAINKOARENGANA joan arte, menperatzailleak dauken gudal indarren keiñaduragaz bizi bear ote dogu beti ?.

-Eta emen ikusten da argi, bizi onen zeazkizunak zeozergaitik ardurazko gauza guztietan, euren ordearen egokitasunezko lekuetan ezartzea dala, Jainkoaren aginduz danak bardiñ eta arduradunezko eragilleak jaiota bizitzan bakez iraun dagigun, bearrezkoak diralako zor-eskubideko ordezkartzak euren ordaiñ lekuetan neurriz kokatuta.

-Baiña, Jainkoak bereztuta ipini euskun legezko bide ori, lanezko izen madarikatua izan balitz bezala laidoztuta daukagun lez, edozein erako erreztasunetara joaten gara, eta ariñ ikusi be egiten dogun gauza guztietan, orekak galtzeko, zelango erreztasunak dagoezan.

-Euskaldunak beti lez, Jainkoaren zor-eskubidearen ardurazko bide orreitatik jokatu bear dogu eten barik, Euskalerrriaren bizitzan nortasunezko orekak iraun dagiezan.

**Erromez-aldi onen idazpuru, berebil-busaren elkartea ta autolaria, kide, antolatzaile ta gidaria.**

**Erromez-txango onen Idazpuru:**

Lisieux´eko Teresita Santuaren atz edo urrats bidean Frantziko lurraldeetatik.

**Bel-bil busaren etxe edo ta bus´aren elkarte ta autolaria:**

Karrasko busaren elkarteko Jose Manuel autolaria izan zan, itxura oneko bus oneitan zentzunezko zeaztasun eta trebetasun aundiz ibili ginduzena Frantziko lurraldeetatik zear, bidaiaren amaieran gure aldetik, merezimendu guztiagaz agurtuta.

**Bidai onen bide-lagunak:**

Euskalerrriaren Ego aldeko lau lurraldeetatik etorritakoak izan giñen erromes-txango aldi onen lagunak.

Zornotzatik.	Bilbao´tik.-
Dañobeitia´tar Mari Karmen.	De Pablo´tar Maribel.
Ugarte ta Erzilla´tar Itxaropena.	Gutierrez´tar Konsuelo.
Barroeta ta Gorritxo´tar Lourdes.	Pagaegi´tar Feli.
Atutxa eta Agirre´tar Paulo.	Egurrola ta Gandiaga´tar Pedro Mari.
Zearreta ta Barrena´tar Madalen.	Diez eta Albarran´tar Ana Mari.
Arana´tar Begoña.	Morales´tar Jesus.
Flores´tar Samuel (Irailan karmeldar apaiztu egingo dana).	De Kebedo´tar Ester.
Sagarna´tar Jabier.	Barreda´tar Asunzion Isabel.
Aldazabal´tar Teresita.	Ortiz de Pinedo´tar Begoña.
Gomez de Segura´tar Rosa Maria.	Kastro eta Fuentes´tar Maria Teresa.
Gonzalez eta Arrejula´tar Maria Pilar.	



<b>Gazteiz'etik.-</b>	<b>Donosti'tik.-</b>
Zuazua'tar Damaso (karmeldarra).	Lapeira'tar Maria Luisa.
Barghese (India'ko karmeldarra).	Lazkano'tar Pilar.
Ephraim (Afrika'ko karmeldarra).	Lasa'tar Maria Jesus.
Remijius (Indonesia'ko karmeldarra).	Lasa'tar Begoña.
Lawrenze (Indonesia'ko karmeldarra).	Plaza'tar Teresa.
Lopez del Korral'tar Mari Sol.	Elizalde'tar Maria Jesus.
Rukandio'tar Karmina.	Jauregi ta Askasibar'tar Koruko Maria.
Korres'tar Margarita.	
Fernandez'tar Maria Teresa.	<b>Iruñatik.-</b>
Angulo'tar Bizitazion (Ikerkunde).	Elizalde'tar Nati.
Uriarte'tar Luzia.	Azparren'tar Maria Errosario.
Perez de Arriluzea'tar Mari Karmen.	Arraiza'tar Marina.
Perez de Arriluzea'tar Mari Kruz.	Garzia'tar Josefina.
Rasines'tar Jose Luis.	Kañedo'tar Teresa.
Iñiguez de Eredia'tar Txelo.	Aniz'tar Emilio.
Antepara'tar Luis.	
Muñoa'tar Mari Jose.	
Landazabal'tar Itxaropena (Esperanza).	
Perez de Landazabal'tar Fermin.	
Martinez de la Fuente ta Bera'tar Jose Franzizko.	

### 55 eleiz-txagolari izan giñan guztiz.

### Bidaiaren antolatzaile ta gidaria:

Zuazua'tar Damaso izan gendun bidai onen antolatzaile ta gidaria, eta ondo baiño obeto ikusi gendun bere maixutza, zeaztasunezko erromes-txango onen zentzunean ez ebalako ezer aaztu eta gitxiago ezer oker egin, gauza guztiak ondo ta aldi berean egin ziralako.

### Bidai onen egun eta ikusitako erriak:

Bagilla'ren 18'an Gazteiz, Bilbao, Zornotzan ta Donostin erromes-txangoa osotzen gendun lagunak batuta, Burdeos'en bazkaldu ondoren Eleiz Nagusian San Simon Stok'en illobia ikusita, Tours'era joan giñan.

### Bagilla'ren 19'an, Tours, Alenzon, Semille, Sees eta Lisieux.

Bagilla'ren 20'ko egunean, Lisieux'ean egon giñan, karmeldar lekaidearen eleizan Meza santua entzun, Lisieux'eko ikusgarrizko basilika edo eleiz-nagusia, illerri, Los Buissonnets, San Pedro'ren eleiz nagusia eta Santa Teresita'ren aitak nun egiten eban arraintzan ikusteko.

Bagilla'ren 21'ean, Lisieux'etik urtenda, Bayeux'eko eleiz nagusian Leonia'ren illobia ikusi, erri orretan bazkaldu ta arratsaldean Honfleur'en Teresita'k ikusi eban Santutegia eta Deaubille-Troubille itsasondoko errietara joaten zan bere uda-tokiak ikusita, Lisieux'eko ostaletxera ostera joateko.

Bagillaren 22'an Bersalles'era joan giñan, berak daukazan lorategi ederrak ikusi ta bazkaldu ondoren Paris'era joanda, arratsaldean askatasun osoz uria ikusteko.

Bagilla'ren 23'an Montmartre'ko eleiza ta elizpeko illobiak ikusita, Garaipeneko Notre Dam eleiz





nagusia ikustera joan giñan Teresitaren oroipenak gogoratuz, eta bazkaldu ostean bertako gidari bategaz, Paris osoa ikusi gendun.

Eta orren ostean askatasunezko denborea euki gendun lez, Damaso Futuroskop ikustera joateko aleginduan, baiña ez zalako jende naikorik egon, bertan itzi genduzen ikuskizun eder orreik bete barik.

Bagilla´ren 24´an Txartres´era joan gintzazan bere eleiz nagusia ikusteko eta bazkaldu ondoren Poitiers´era joateko, bertan afaldu eta lo egiteko.

Eta Bagilla´ren 25´ean Poitiers´eko karmeldarren lekaidetxean mezea entzunda, osterita itzuli giñan bakotza beren etxera.

**Bidaiaren ordain-saria:**

Ondo neurtutako 700 eurokoa izan zan, guk egin gendun bidea ta ibili gintzazan ostatu garbi ta pa-

txada edo itxura onetatik, ordain diru orregaz egiteko, gauzak ondo neurtuta egon bear diralako.

Janariekin be ondo ibili giñan naita batzuk, ollaskoaren kukurrukuak egiten asita egon, janari guztietako plater edo jatekoan ollaskoaren okelak izan ziralako ia izar bakarrak gatz-ozpiñ ugarirekin.

**Ondorio lez.**

Esan bear dot:

Lisieux´eko karmeldar lekaidearen eleizan, Basilika edo Eleiz Nagusiaren abad edo Apaiz-buru zanari aurkeztu euskunean espainiar lez, berak zeaztuz, zer izan giñen edo nortzuk giñela itandu ebenean eta euskaldunen erantzuna artu arte, espainiar izena ugari ibili zala gure artean, eta ararte entzun genduzan Meza Santu guztietan euskerarik ez bazan agertu, andik aurrera geiago izan zala euskerea, erromes bide au amaitu arte.

Eta bakoitzaren errietara eldu giñanean, danon arteko agurra benetan diñot, anai arteko agurra izan zala, erromes bidai oneri, arraultz-opil edo gozo-opil baten gaiñean ginda ipintea lez izan balitz bezala.

**Oar txiki bat.**

Zornotzako andrek, barriro uste dot alkar-bat egiten dabizela, karmeldarrak zelan zirikatu, datorren urtean Erroma´ra joan al-izateko.



**Atutxa´tar Paul**

*Zornotzan 2.012´an Uztailla´ren 7´an*



# #Euskaldun barrientzat

Zazpi utsak



## IPUIN SARIKETA

EUSKERAZALEAK ALKARTEAK, urte guztietan lez aurtan be, ipuin sariketea iragarten dau, oiñarri-arauak oneik dirala:

- Ipuiñak euskeraz eta erriak erabilten dauan euskalkia erabilliaz idatziak izan bearco dabe eta idazkerea, EUSKERAZAINTZAK argitaratua eta ZER aldizkarian erabilten dana.
- Ipuinak asmatuikoak edo errian batuak izango dira, ez idatzita dagozanak edo itzulpenak.
- Luzeera iru orrialdetik lau orrialdera, idazkiñez idatzita eta bitarte bi dirala. Saria irabazten dabenak ZER-en argitaratuko dira. Saririk irabazten ez dabenak be bai ipuiñaren barrenean idazleak baimena emoten dauanean.
- Azillaren azkenerako EUSKERAZALEAK ALKARTEAren etxean (Bilbaoko Colon de Larreategi, 14, 2<sup>a</sup> eskoia) egon bear dabe. Abenduaren azkenerako emongo da maikoen erabagia eta Zer-en agertuko da, Urterillan.
- Sariak bost izango dira:

1. <sup>a</sup>	300 euro	4. <sup>a</sup>	120 euro
2. <sup>a</sup>	240 euro	5. <sup>a</sup>	60 euro
3. <sup>a</sup>	180 euro		
- Ipuiñak izen ordeagaz bialdu eta karta-azal txiki baten barruan izen-ordea ta izena.
- Epea azillaren azkenera arte.
- Mesedez bialdu CD edo disketea



EUSKERAZALEAK

## ARPIDETZAKO TXARTELA

ZER aldizkaria artu gura dot eta bialdu egidazue zuzenbide onetara:

..... tar .....

..... kalean (auzoan)..... zenbakian

..... errian, ..... errialdean (probintzian)

Arpidetza ordaintzeko ..... diru-etxera (bankura) bialdu ordain-txartela, an daukadan      zenbakidun diru-kontura.

ZABALDU DAGIZUN “ZER”. Arpidedun bakoitxak billatu begi beste bat!

Din dan don, din dan don!  
Eguberri on!  
Zorion, zorion!  
gabonak, din-dan, don!  
Din dan don, din dan don!  
Eguberrion!  
Zorion, zorion, Gabonak Gabon!

Izar bat asi da dizdizka zeruan  
berri onak zabaltzen ari zaigu munduan.  
Jaio da, jaio da, Jaunaren semea,  
askatxo batean dago, lastoen gainean.

Din dan don...

Aingeruak kanta, artzain onak dantzan,  
Jainkoaren jaiotzan Pakea eta aintza!  
Astoak, aja-ja! Idiak, muu-mu!  
estalpe zaarrea kantuan ari zaizkigu.

Din dan don...

Antxon eta Peru, artzain buruzuri,  
izarrari jarraika biak datoz arinka.  
Menditik barrena, aurtxoarengana,  
artzain bakoitzak darama arkumetxo bana.

Din dan don...

